


Euskal AEko BPG % 4,3 hazi da 2022an guztira

Lanpostu-kopuruaren igoera % 3,1ekoa izan da 2022 osoan

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) % 4,3 igo da 2022. urtean 2021. urtearekin alderatuta, Eustatek eginiko Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenaren kalkuluen arabera. Bestalde, enplegua, lanaldi osoko lanpostu gisa neurtuta, % 3,1 igo da urtean zehar; hau da, 30.000 lanpostu inguru sortu dira.

Aurrerapen hau egiteko unean eskura zegoen koiunturazko informazio ekonomikoaren azterketatik ondorioztatzen da ezen balio erantsia 2022an hazi dela Euskal AEko ekonomiaren sektore guztietan, baina 2021ean baino erritmo motelagoan.



2022ko **laugarren hiruhilekoari** doakionez, BPGk % 0,4 egin du gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta aurreko urteko hiruhileko beraren aldean igoera % 2,8koa dela kalkulatu da.

2022ko azken hiruhilekorako kalkulaturako lanaldi osoko lanpostuen kopurua aurreko urteko azken hiruhilekokoa baino % 1,9 handiagoa da. Hiruhileko arteko terminoetan,

azken hiruhilekoan, 2022ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, % 0,1eko igoera zenbatetsi da.

Datorren **martxoaren 3an** Eustatek argitaratuko ditu 2022ko laugarren hiruhilekoko Hiruhileroko Kontuetan BPGren eta enpleguaren zenbatespen bereiziak, Aurrerapen hau egiteko unean eskuragarri ez zegoen informazio koiunturala sartu ondoren.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62